FAUNA et l'observatoire biologie végétale sont des pôles de la démarche partenariale d'inventaire régional du patrimoine naturel, visant une meilleure gestion et restitution publique de données sur la biodiversité.

Atlasa, diziplina anitzeko aditu talde abaten laguntzarekin (botanikariak, abere adituak, entomologistak...) bideratzen den abereen eta landareen inbentario kartografiko bat da. 2023an, Urruñak Frantziako Bioaniztasunaren Bulegoak luzatu deialdia irabazi du. Cistude nature elkartarekin eta Euskal Herriko itsasbazterreko CPIEekin partaidetzan abereen eta landareen zerrendatze lana bideratzen hasi da 2024ko martxoan. Adituen ondoan, adin guzietako herritarrek abereen eta landareen inbentarioan parte hartu dezakete eta sentiberatze ekintzak antolatu dira: hitzaldiak, intsektuen behaketak, ibilaldi gidatuak, belar bildumak.

<https://observatoire-fauna.fr/resources/application-mobile>

LEXIQUE / HIZTEGIA

hérisson : trikua - hirondelle : ainara - chouette : hontza - ver luisant : ipurtargia - papillon : pinpirina

Un diagnostic pastoral issu des réflexions de Gure mendia Artzaintza eta mendiak babesteko ekintza plan bat osatzen ari da gure mendia lan taldea

Les communes de montagne du Sud Pays Basque (Bariatou, Urrugne, Ciboure, Ascain, Sare, Saint-Pée-sur-Nivelle et Ainhoa) et de Navarre (Bera, Etxalar, Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan) ont créé depuis 2021 un groupe de travail nommé « Gure Mendia » / « notre montagne ». Il a pour vocation d'y développer un espace d'échanges et de prospective commune sur la gestion et l'aménagement des massifs frontaliers de cette zone, sur des sujets tels que le pastoralisme, la forêt, le multiusage, la biodiversité, le patrimoine.

Les enjeux liés à la gestion pastorale du massif et ses synergies avec la gestion forestière sont prégnants dans tous les échanges du groupe de travail GURE MENDIA, avec des actions à développer autour du pastoralisme :

- Préserver le pastoralisme pour l'ouverture des milieux et le maintien de la biodiversité,
- Appuyer les pratiques pastorales pour entretenir les massifs et réduire les risques incendies, comme offrir des espaces de refuge aux randonneurs en situation d'urgence,
- Créer des équipements pastoraux nécessaires pour favoriser la présence du bétail en estive,
- Identifier des zones pastorales en dehors des flux des usagers de loisirs,
- Maintenir des outils complémentaires nécessaires : gyrobroyage, éco-buage...,
- Renouveler les facéries, associations et conventions qui lient les communes en transfrontalier,

• Appuyer des initiatives d'utilisation de la montagne par le pastoralisme comme ressource économique du territoire, et garantie de la vie de celui-ci. Des activités à l'année en montagne assurent une présence humaine constante dans les villages.

Afin de mener à bien des actions concrètes pouvant être portées par une ou plusieurs communes, les communes de Urrugne (chef de file), Bariatou, Ascain, Sare, Saint-Pée-sur-Nivelle, Ainhoa, Bera et le Baztan se sont regroupées pour porter un diagnostic pastoral transfrontalier.

Ce projet est accompagné financièrement dans le cadre de l'appel à microprojets de coopération transfrontalière dans les Pyrénées dans sa première phase, puis par la Communauté d'Agglomération Pays Basque via son Fonds de Soutien aux initiatives Transfrontalières.

Que va apporter le diagnostic pastoral ?

Le diagnostic pastoral vise à réaliser une photographie de la pratique de la transhumance sur le territoire tout en questionnant l'évolution de l'activité dans les années à venir. Il prend la forme d'un outil objectif d'aide à la décision devant, par exemple, permettre de lister les travaux à réaliser pour conforter le travail des bergers ou encore identifier les secteurs en déprise susceptibles d'accueillir de nouveaux éleveurs transhumants...

Comment va être réalisé ce diagnostic ?

Suite à une consultation, les élus de



Gure Mendia ont retenu Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG) pour réaliser le diagnostic pastoral transfrontalier. Le travail a démarré en septembre 2023.

Le territoire d'étude a été découpé en 8 secteurs : Xoldo, Larrun Nord, Suhalmendi, Santa Barbara, Ibanteli, Atxuria, Xuri Borda, Gorospil.

Dans chaque secteur, une étude fine des pratiques agricoles, de la végétation, des besoins des éleveurs va être réalisée, et c'est à partir des propos des éleveurs recueillis via des questionnaires et via des réunions de groupe que cela se fera.

L'ensemble de ces éléments vont être récoltés par les techniciens d'EHLG (Emilie Chomard, Guillaume Cavailles, Benoit Jean et Iker Elozegi) avec l'appui de référents par secteur nommés par les membres de Gure Mendia.

Une phase de présentation du territoire qui s'est terminée fin 2023

Cette première phase de l'étude a permis un état de lieux général du territoire (description, enjeux, problématiques),

- des enquêtes auprès des éleveurs transhumants en montagne (utilisation, besoins...) afin de caractériser les niveaux et types d'utilisation pastorales,
- une première compilation des données cartographiques sur les équipements pastoraux en place, et des enquêtes auprès de personnes ressources utilisatrices de la montagne (forestiers, chasseurs, loisirs).

Une phase "terrain" jusqu'en octobre 2024



En second lieu ce diagnostic permettra une approche terrain avec la caractérisation fine de la végétation et des équipements pastoraux ainsi que la définition d'un programme d'actions transfrontalier pour développer durablement et collectivement le territoire de la montagne.

Cette étude permettra d'élaborer un programme d'actions pluriannuel qui devra :

- présenter le coût des opérations et réaliser leur phasage
- réaliser des fiches actions précises par opération

Ce programme d'actions sera discuté et travaillé avec l'ensemble des partenaires concernés. Un comité de pilotage a été institué pour le suivi de toute l'étude.

La commune d'Urrugne développe sa politique volontariste autour de la gestion vertueuse des espaces publics et des bâtiments.

Pourquoi changer les pratiques de nettoyage des locaux communaux ?

- Pour la santé des agents d'entretien et des occupants (les enfants des écoles, les agents, le public...)
- Pour limiter la fabrication de produits nocifs avec fort impact environnemental
- Pour limiter les déchets d'emballage et de nettoyage ... et réaliser des économies sur l'achat de multiples produits d'entretien.
- Pour toutes ces raisons, la ville s'engage dans une démarche d'entretien non chimique des locaux.

Hego Lapurdiko (Biriatu, Urruña, Ziburu, Azkaine, Sara, Senpere eta Ainhoa) eta Nafarroako (Bera, Etxalar, Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan) herriek, mugako mendigunen kudeaketaz eta antolaketaz trukatzeko eta bestetik, artzaintza, oihana, mota askotako erabilera, bioaniztasuna, ondarea eta antzeko gaien inguruan gogoetatzeko "Gure Mendia" lantaldea osatu zuten 2021ean. Gogoeta horren baitan lurraldean transhumantzia jardueraren gaurko eta etorkizuneko egoera aztertu zen eta artzaintzari buruz garatu beharreko ekintza batzu zerrendatu ziren:

- Artzaintza zaintzea eremuak irekitzeko eta bioaniztasuna zaintzeko,

- Artzaintza jarduerak sustatzea mendiguneak artatzeko, sute arriskuak murrizteko, larraldian dauden ibiltariei aterpe guneak eskaintzeko,
- Artzaintza ekipamenduak sortzea, kabalak bazkatzera etor daitezen,
- Erabiltzaileen bideetatik kanpoko artzaintza guneak identifikatzea aisialdiarako,
- Tresna osagarriak mantentzea: sasi garbitzea, luberritza...
- Mugaz gaindiko herriak elkar lotzen dituzten fazeiak, elkar-teak eta hitzarmenak berritzea,
- Mendia erabiltzeko artzaintzaren ekimenak sustatzea lurraldeko baliabide ekonomiko gisa, eta honen bizitzaren bermatzeko.

Gure Mendia taldeko hautetsiek Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG) hautatu dute mugaz gaindiko artzaintzari buruzko diagnostikoa eramateko. Lana irail honetan hasiko da, 8 eremutan : Xoldo, ipar Larrun, Suhalmendi, Santa Barbara, Ibanteli, Atxuria, Xuri Borda eta Gorospil.

2023an, diagnostikoaren lehen urratsak lurraldeko argazki orokor bat eskaini du, transhumantzia egiten duten artzainen iritziak bilduz, artzaingintzarako baliatzen diren ekipamenduen buruzko kartografia bat osatuz eta mendia baliatzen duten adituen iritziak bilduz.

2024ko urria arte iraunen duen bigarren urrats batean, landa lana bideratuko da, landareen eta ekipamenduen ezaugarritza burutuz eta mendia iraunkorki eta kolektiboki garatzeko mugazgaindiko urte ainitzetako ekintza plan bat osatuz. Ekintza plana partaide desberdinen artean eztabaidatuko da, eta gidaritza batzorde batek jarraipena bermatuko du.

Horretarako, Pinioetako mugaz gaindiko kooperaziorako mikro proiektu deialdi baten baitan egitasmoaren lehen urratsa diruz lagundua izan da. Bestalde, Euskal Hirigune Elkargoak lagunduko du Mugaz Gaindiko ekimenei esleitutako Sostengu Funtsaren bidez.

Praktika egokien gida

Adopter des pratiques plus vertueuses

Urruñako herriak bere trantsizio ekologikoari buruzko politika garatzen du eremu publikoen eta eraikinen kudeaketan.

Zergatik herriko eraikinen garbitzeko ohiturak aldatu?

Langileen eta eraikin horien erabiltzaileen osasuna babesteko (eskoletako haurrak, langileak, publikoa...)

Ingurumena kaltetzen duten produktu kaltegarrien fabrikazioa mugatzeko

Gainestalki eta garbiketa hondakinen mugatzeko

Produktuen erosketaren inguruko gastuak murriztu

Horretarako, herria eraikinen garbitzeko produktu kutsakorik ez erabiltzeko erabakia hartu du.

Zergatik mozketa mugatu?

Hiriak hainbat urte daramatza kudeaketa bereizia eta fitorik gabeko politika bat eramaten bioaniztasunaren babesteko. Herritarrek ere berdin egin dezakete:

Bioaniztasuna babesteko eta berotegi efektuko gasen isurketa murrizteko

intsektuen gainbeherari aurre egiteko: «belar gaiztotzat» jotzen den mando lilia polinizatzaileentzat garrantzitsua da. Beraz, saia gaitetzen mozketa maiztasuna murriztea, edo baratzeetako lursail batzuetan mozketarik ez egitea.

Zergatik hondakinen bereizketa selektiboari buruz sentiberatu?

Hondakinen bereizketari buruzko ezjakintasunak edota arduragabeko jokabideek ingurumenaren, osasunaren eta ekonomiaren gaineko ondorioak dituzte.

Hondakinen ibilbidea ezagutzeko bereizketan egiten diren hutsen eragina ulertzeko, herriko langileek Canopia bereizketa plataforma bisitatu dute Baionan.

La commune d'Urrugne développe sa politique volontariste autour de la gestion vertueuse des espaces publics et des bâtiments.

Pourquoi changer les pratiques de nettoyage des locaux communaux ?

Afin de préserver la santé des agents d'entretien et des occupants des locaux, ou encore pour limiter la fabrication et l'utilisation de produits nocifs avec fort impact environnemental, la ville s'est engagée dans une démarche d'entretien non chimique des locaux.

Pourquoi limiter la tonte ?

La commune pratique depuis plusieurs années la gestion différenciée et le zéro phyto, dont un des intérêts est de préserver la biodiversité. Ces pratiques peuvent être adoptées par les particuliers.



“
EUSKARA
PLANA
”

Urruña euskararen biziberritzearen alde engaiatzen da

“
PLAN
EUSKARA
”

Urrugne s'engage dans la revitalisation de la langue basque

2024/2028

Aitzin solasa

Euskara, milurtekoa bezainbat gaur egungo hizkuntza izanki, mendeak zeharkatu ditu etengabe egokituz. Gaur egun, munduan hitz egiten diren beste 6000 hizkuntzak bezala, gizakien arteko komunikaziorako baliatzen den hizkuntza modernoa da, jakintza hedatzaile eta kultur aniztasunaren osagai. Haatik, desagertzeko lanjerrean da eta ez da aski erabilia. UNESCOren Arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlasak lanjerrean diren 2500 hizkuntzen artean kokatzen du.

Azken hamarkadetan gainbehera ezagutu ondoren, nagusiki familia transmisioaren hausturagatik, egun, botere publikoen eta jendarte zibilaren ekintza bateratuari esker, euskararen biziberritze prozesua berrituz abiatu da, batez ere, belaunaldi gazteetan. Denen erronka da, beraz, euskararen biziberritzea. Euskara, ez da apaingarri bat; babestu behar den ondare kultural bat baino gehiago da; zerbait gehiago ekarri behar die Urruñarrei.

11.000 biztanlerekin, Urruña ez da gehiago herrixka bat. Herriko Etxeak hurbileko zerbitzuak eskaintzen ditu, haren jarduerak, ekintzak, herritarren eguneroko bizian duten eragina, zilegitze boterea, eragile publiko, pribatu edo elkarrengan izan dezaketen eredu-garritasuna kontuan hartuz, euskara sustatzea helburu duen hizkuntza politika eraginkor bat plantan ezartzeko eragilerik egokiena da dudarik gabe. Herriko Etxea lurralde mailako erronken aktore bilakatzen da, euskararen biziberritzea hizkuntza komunitate oso baten helburua baita erakunde publikoek eta gizarte zibilak eramana, mugaren bi aldeetan. 2024-2028 denboraldiko Euskara Planak Urruñan hizkuntza-politika egituratu bat plantan ezartzeko lehen urratsak markatuko ditu, ausartak eta era berean hautu librearen printzipioan oinarrituak. Aldaketa politika publiko oro bezala, hizkuntza politika denei zuzentzen zaie, euskaldunei bezainbat (hiztun aktiboak, pasiboak edo ikasten ari direnak), euskaldunak ez direnei ere, jatorriz Urruñan sortu direnei eta berriki etorri direnei, euskara ikasten dutenei, hasiberriei, euskaldun zaharrei edo kuriosei. Lurraldeko herritar aniztentzat, komunikatzeko tresna da, loturak sortzen dituena, integrazioarako bidea irekitzen duena, lurraldean sustraitzen dituena. Hiztunei euskara eremu publikoan erabiltzeko aukerak eskainiz, belaunaldi gazteei euskararen irakaspena zentzuz jantziz, herritarrei erronkak ulertzeko parada eskainiz, elkarbizitzarako oinarriak finkatzen dira. Bestalde, euskararen aldeko politika publikoak ez dezake osoki helburua lortu ez bada bere ikusgarritasunean eta erabilpenean eragiten. Urruñako euskara planak Urruñarrak bere ekintzaren erdigunean kokatuko ditu, eguneroko biziaren eremuetan eraginez, euskara ikusgarri eta helgarri bilaka dadin. Herriko Etxe gisa, gure ardura ere bada euskara biziaraztea, eta eremu publikoan dagokion lekua eskaintzea, ikusgarriagoa, ikasiagoa, erabiliagoa izan dadin. Elkarbizitzarako giltza da.

Préambule

A la fois millénaire et actuelle, la langue basque, l'euskara, s'est transmise et a traversé les siècles en s'adaptant aux différentes évolutions. C'est aujourd'hui, à l'instar des 6000 langues parlées dans le monde, une langue de communication moderne, porteuse de connaissance et une composante de la diversité culturelle. Mais paradoxalement, c'est aussi une langue en danger, qui ne se transmet et ne s'emploie plus suffisamment. L'Atlas UNESCO des langues en danger dans le monde place la langue basque dans la liste des 2500 langues vulnérables.

Après une période de déclin progressif principalement due à la rupture de la transmission familiale, l'engagement et l'action conjuguée des pouvoirs publics et de la société civile ont permis une reprise dans le processus de revitalisation de la langue basque, notamment par les jeunes générations. Leur revitalisation est donc l'enjeu de tous. L'euskara ne se limite pas à sa valeur testimoniale, elle est bien plus qu'un patrimoine culturel que nous devrions préserver ; elle doit apporter quelque chose aux Urruñar.

Avec près de 11 000 habitants, Urrugne n'est plus un village. Par l'ensemble des services de proximité qui relèvent de sa compétence, par l'impact de son activité sur la vie quotidienne des citoyens, par son pouvoir de légitimation, par l'exemplarité que peut revêtir son action sur les opérateurs publics, privés et associatifs de son territoire, la commune est sans nul doute l'opérateur privilégié pour contribuer à la réussite d'une politique linguistique visant à promouvoir l'euskara. Elle est l'une des actrices d'un enjeu territorial, car la revitalisation d'une langue est un objectif de toute une communauté linguistique, porté par des institutions publiques et la société civile des deux côtés de la frontière. Le Plan euskara 2024-2028 permettra de poser les premières pierres à l'édifice, à avancer dans la structuration et la mise en œuvre d'une politique linguistique audacieuse à l'échelle d'Urrugne qui interviendra sur le principe de la libre adhésion. Comme toute politique publique de transformation, la politique linguistique s'adresse à tous, aux bascophones (locuteurs actifs, passifs ou apprenants) ainsi qu'aux non-bascophones aux Urruñar, de naissance ou récemment installés, locuteurs de toujours ou en apprentissage, curieux ou néophytes. Elle est pour de nombreux habitants du territoire un moyen de communication actuel, créateur de liens, facteur d'intégration, d'ancrage dans le territoire, et contribuant au vivre-ensemble. En donnant aux locuteurs l'occasion de s'exprimer en basque dans la sphère publique, aux jeunes générations la chance d'acquérir cette langue porteuse de sens et aux citoyens l'opportunité de comprendre les enjeux, elle permettra d'organiser un vivre ensemble harmonieux. La politique publique en faveur de la langue basque ne saurait atteindre pleinement ses objectifs sans une action sur son attractivité et le développement de la langue dans les secteurs d'usage. Le plan euskara mettra les Urruñar au cœur de son action, en développant son intervention dans les domaines de la vie quotidienne, afin que l'euskara devienne visible et accessible. En tant que municipalité, il nous appartient donc de faire vivre l'euskara, en contribuant à son rayonnement dans l'espace public, en la rendant plus visible, apprise et pratiquée.

3 helburu, 7 ardatz

Helburuak:

- Herritarren aldeotasuna sustatzea.
- Transmisioa sustatzea.
- Erabilera guneak garatzea, herriko etxeko zerbitzuen eskaintzan eta eremu publikoan.

1

Politika orokorra eta zeharlerrokoa: hizkuntza administrazioaren politika orokorretan integratzea.
Politique générale et transversale : intégrer l'euskara dans les politiques générales de l'administration

2

Herriko etxeko zerbitzuetan euskarazko eskaintza garatzea: herritarrenganako zerbitzuak lehenetsiz, erabilera sozialerako aukerak irekiz eta langileak formatuz.
Déployer une offre de services en langue basque en priorisant les services à la population et développer des possibilités d'usage social, en formant les agents.

3

Etorkizuneko erronkari aurre egitea: hiztunen kopurua emendatuz, haur, gazte eta burasoak helburutzat hartuz.
Saisir les enjeux de l'avenir : augmenter le nombre de locuteurs, avec les enfants, les jeunes et les parents comme cœur de cible.

4

Zubiak eraikitzea eta euskararen aldeko giroa sortzea. Hizkuntzaren ospean eta erakargarritasunean eragitea, erdaldunak sentiberatuz.
Créer du lien et une dynamique favorable à l'euskara : agir sur le prestige et l'attractivité de la langue, la sensibilisation des non bascophones.

3 objectifs, 7 axes

Objectifs:

- Adhésion de la population.
- Transmission.
- Création d'espaces d'usage dans les services de la municipalité et dans l'espace public.

5

Euskara plazan eta eremu publikoan zabaltzea: ikusgarri eginez eta erabiltzeko espazioak sortuz herriko eragileekin elkarlanean.
Faire rayonner l'euskara sur la place et développer des espaces d'usage : développer la présence, la visibilité de la langue dans la ville et déployer des espaces d'usage en partenariat avec les acteurs privés.

6

Dinamikak sortzea eta sareetza: Herriko eragile, lurraldeko herri, elkargo eta mugazgandiko sareetan elikatuz eta dinamikak sortuz.
Impulser une dynamique et des réseaux : acteurs privés, communes du territoire, et transfrontalières. Echanger sur les bonnes pratiques.

7

Arnasguneak eskaintzea: euskal hiztunei euskara ikusteko, entzuteko, praktikatzeko momentuak sortuz.
Proposer des moments en euskara : créer des occasions où les locuteurs bascophones pourront apprécier et pratiquer la langue.



Zerbitzuetan euskarazko eskaintza garatu

10 000 biztanletik gorako herrietan, hizkuntza-politika eraginkor eta ausarta eraman nahi bada, euskara zerbitzu propio baten presentzia ezinbestekoa da.

- Herriko hizkuntza paisaia eta irudian euskara integratzea
- Euskarazko eskaintza egituratzea herritarrekin harremanetan diren zerbitzuetan eta horretarako langileak formatzea eta laguntzea
- Euskara dakiten langileak seinalatzea.
- Gaitasun berarekin, euskara konduan hartzea langile bat hartzerakoan.
- Urruñan euskaraz burutu daitezkeen desmarta administratiboak ezagutaraztea: familia liburuxka, ezkontzak, bataio zibilak...
- Urruñarrei, herriko elkartei eta eragile sozio-ekonomikoei eta hautetsiei zuzendu komunikazio euskarri orotan euskara erabiltzea
- Hitz hartze ofizialeetan, prentsaurrekoetan eta animazio, estreinaldi eta bestelakoetan, euskararen presentzia bermatzea.
- Euskara bermatzea komunikazio numerikoan (internet, sare sozialak, taula numerikoa...).
- Euskarazko hedabideak sustengatzea.
- Euskal hedabideekiko harremanak euskaraz bermatzea.

Déployer une offre de services en langue basque

Pour les mairies de plus 10 000 habitants, la présence en interne d'un service langue basque communal constitue la manière la plus efficace et ambitieuse de développer une politique linguistique.

- Intégrer l'euskara dans le paysage linguistique et l'identité visuelle de la commune
- Déployer une offre bilingue dans les services en contact avec le public, former et accompagner les agents si nécessaire
- Identifier les agents bascophones.
- Prendre en compte, à compétence égale, la connaissance de la langue basque au moment des recrutements.
- Faire connaître aux Urruñar les démarches administratives pouvant être réalisées en euskara : livret de famille, mariages, baptêmes civils...
- Utiliser la langue basque dans tous les supports de communication à destination des Urruñar, des associations et acteurs socio-économiques ainsi que des élus
- Veiller à la présence de la langue basque dans les prises de paroles officielles, les conférences de presse, animations, inaugurations
- Utiliser la langue basque dans la communication numérique (internet, réseaux sociaux, site internet).
- Intégrer la langue basque dans les relations avec la presse bascophone.
- Soutenir les médias d'expression bascophone.

Lehen haurtzaroa: transmisioaren zutabea

"Lehen haurtzaroa, familiarekin eta eskolarekin, transmisio prozesuraren gakoa da. Eleaniztasun goiztiarra laguntzeaz gain, haurrari euskarazko irakaskuntza batetan sartzeko ingurumen baikor bat eskaintzen diote."

Euskara jalgi hadi plazara, elkargoaren hizkuntza politika proiektua 2018/06/23

- Haurtzaindegien euskarazko harrera garatzea eta agerian ezartzea.
- Burasoei begirako informazio eta sentiberatze ekintzak antolatzea: tailerrak, mahai-inguruak, hitzaldiak (elebitasun goiztiarraren abantailak...).
- Lehen haurtzaroren euskarazko astearren kariatara eta elkargoak antolatzen duen Kalakaño festibalaren kariatara euskarazko ekintzak proposatzea.
- Euskarriak sortzea eta hezkuntza materiala eskuragarri ematea.
- Elkargoak Baionako herriko etxearen bidez eskaintzen duen sortze pak-a ezagutaraztea.
- Etxeko haurtzainak, harrera kolektiboko egiturentzat eta egitura horien burasoentzat antolatzen diren gertakarietara gomitatzea.

La petite enfance : vecteur de transmission

"La petite enfance, aux côtés de la famille et de l'école, est l'un des composants du processus de transmission. Les structures agissant dans le domaine de la petite enfance favorisent le plurilinguisme et créent un environnement favorable pour une scolarisation en langue basque."

Euskara jalgi hadi plazara, elkargoaren hizkuntza politika proiektua 2018/06/23

- Accompagner et mettre en valeur l'accueil collectif bilingue des crèches.
- Proposer des actions de sensibilisation et d'information aux parents des crèches : ateliers, tables-rondes, conférences (avantages du bilinguisme précoce...).
- Proposer des actions en euskara dans le cadre de la semaine de la petite enfance et Kalakaño organisé par la CAPB.
- Créer des supports et permettre l'accès à du matériel éducatif.
- Faire connaître le pack naissance proposé par la CAPB et délivré à la mairie de Bayonne.
- Intégrer les assistantes maternelles dans les actions à destination des crèches collectives et des parents.

Irakaskuntza: transmisio gunea

Transmisioa eskolaren bidez egiten da nagusiki. Ama eskola eta lehen mailari dagokionez, herriak du eskumena". Uruñan eskola guzietan sare elebiduna edo murgiltzea proposatzen dute. Ikasleen %72ak euskaraz ikasten du 2023ko sartzean.

Euskara jalgi hadi plazara, l'euskara rayonne sur nos places, Elkargoko hizkuntza politika proiektua, 2018/06/23

- Burasoei begirako informazio eta sentiberatze ekintzak antolatzea: tailerrak, mahai-inguruak, hitzaldiak, buraso iritxi berrientzako tailerrak, 5.eko haurren burasoei zuzendu mahai-inguruak...
- Eskolaldiaren inguruko euskarazko jarduerak garatzea.
- Euskarazko mediazio ekintzak garatzea.
- Euskarazko hitzorduak antolatzea.
- Auzoko herrietan gertatzen diren euskararen inguruko gertakarietan parte hartzea.
- Burasoei zuzendu euskarriak sortzea.
- Eskolen arteko topaketa bat antolatzea.
- Eskoletan ari diren herriko etxeetako langileak euskalduntzea.
- Eskolen ingurumena euskalduntzen laguntzea

Aisialdia: erabilera gune jostagarria

"Euskara dakiten gazte gehienek eskolan soilik ikasten eta ballatzen dute. Haatik, aisialdi jarduerak, euskara ikasteko lagungarriak dira, haur eta gazteek, euskararekin harremanetan duten denbora luzatzen baita eta hizkuntzari ospea ematen baitio, erabiltzeko motibazioan eraginez"

Euskara jalgi hadi plazara, l'euskara rayonne sur nos places, Elkargoko hizkuntza politika proiektua, 2018/06/23

- Herriko aisialdi guneetan euskarazko eskaintza egituratzea
- Asteazkenetako harreraren euskarazko jarduerak garatzea.
- Kirol zerbitzuaren euskarazko eskaintza garatzea, asteazkenetan eta oporretan.
- Burasoei begirako informazioa antolatzea: Euskarazko Aisien gida, HAIGA formakuntzak...
- Euskarazko egonaldiaren garatzea eta ezagutaraztea: Mugaldea egonaldi ibiltaria, Euskarabentura, aisialdi gune eta gazte zerbitzuko egonaldiak.
- Euskara eta euskal kultura ezagutzeko hitzorduak antolatzea: kirol topaketak, aisialdi, ateraldiak, aisialdi guneen/ kirol zerbitzuen arteko topaketa .
- Auzoko herrietan edo mugazgairidikoetan gertatzen diren euskararen inguruko gertakarietan parte hartzea .
- Herriko aisialdi guneen eta elkarten euskarriak euskaratzen laguntzea.
- Haurren kontseiluarekin euskararen inguruan lan egitea.

Euskara eguneroko bizian

Hizkuntza biziberritu nahi bada, ikasia izan den hizkuntza, erabilia, entzuna, ikusia, izan dadin erabilera espazioak sortzea ezinbestekoa da. Hizkuntza politikak ikuspegi osokoa izateko, herriko eragile pribatuekin elkarlanean aritzea garrantzitsua da.

- Beren egituraren euskararen presentzia eta eskaintza garatu nahi luketen elkarte nagusiekin hitzarmenak egitea.
- Elkarrekin euskararen alde egin indarrak kontuan hartzea eta baloratzea.
- Eragileentzako tresnak sortzea eta hedatzea: panelak, mahai-azpikoak, lexikoak...
- Bai Euskarari/Eusko elkarteek eskain dezaketen laguntza aurkeztea eta bultzatzea.
- Euskarazko harrera eskain dezaketen eragileak identifikatzea eta agerian uztea
- Jatetxeekin, ostatu, elkarteekin euskararen inguruko gertakari bat antolatzea.
- Komunikazio kanpaina bat antolatzea: *zure saltokian euskaraz!*, *Bestak euskaraz!*
- Bestak antolatzen dituzten komite, eta elkarteekin tailerrak antolatzea.
- Elkarteekin kolaborazioa eta elkarlana bultzatzea euskararen inguruko eta kultur proiektuen inguruan.
- Eragile berrien etorrerak sortuko lituzkeen aukerak aztertzea.

Enseignement : lieu de transmission

"La transmission de la langue se fait essentiellement au travers de l'école. La maternelle et le primaire sont une compétence de la commune". À Urrugne toutes les écoles proposent un enseignement en langue basque, qu'il s'agisse d'un modèle bilingue ou immersif. Près de 72% des enfants sont scolarisés en langue basque à la rentrée 2023.

Euskara jalgi hadi plazara, l'euskara rayonne sur nos places, Elkargoko hizkuntza politika proiektua, 2018/06/23

- Proposer des actions de sensibilisation et d'information aux parents : ateliers (notamment pour les nouveaux arrivants), tables-rondes, conférences, rencontres avec les parents des élèves de CM2.
- Développer des activités en euskara dans le domaine du périscolaire.
- Proposer des actions de médiation en euskara.
- Organiser des rendez-vous en euskara.
- Organiser une rencontre interscolaire en euskara.
- Participer aux événements organisés pour les écoles autour de l'euskara.
- Créer/ diffuser des supports à destination des parents.
- Former les agents municipaux intervenant dans les écoles.
- Accompagner les écoles qui souhaitent intégrer l'euskara dans leur environnement

Loisirs : un espace d'usage ludique

La majorité des jeunes bascophones apprend et utilise la langue basque dans le cadre scolaire. Aussi, les activités de loisirs peuvent encourager et faciliter cet apprentissage, en leur permettant de prolonger le temps d'exposition de l'enfant à la langue et lui conférer une dimension ludique. Cela joue sur sa motivation à apprendre et utiliser la langue."

Euskara jalgi hadi plazara, l'euskara rayonne sur nos places, Elkargoko hizkuntza politika proiektua, 2018/06/23

- Déployer un accueil bilingue dans les ALSH de la commune.
- Proposer des activités en langue basque au sein de l'accueil de loisirs les mercredis et dans les actions proposées par l'espace jeune.
- Développer une offre d'activités en langue basque dans les activités du service sport les mercredis et pendant les vacances.
- Informer les parents : guide des loisirs en langue basque, formations BAFA en langue basque
- Développer et faire connaître les offres de séjours en langue basque : Projet Mugaldea, Euskarabentura, séjours de l'accueil de loisirs.
- Organiser des rendez-vous et des découvertes de la culture en langue basque : rencontre sportive, loisirs, sorties, entre accueil de loisirs.
- Participer aux événements en langue basque qui existent dans les communes voisines et dans le cadre du transfrontalier.
- Accompagner le service sport et jeunesse dans la traduction de leurs documents.
- Travailler avec le conseil municipal des enfants autour de la langue basque .

L'euskara au quotidien

Promouvoir l'usage social de la langue basque pour que la langue apprise soit aussi une langue pratiquée, vue et entendue dans les lieux de vie est une des conditions indispensables à la revitalisation de la langue. Il convient de développer des lieux d'usage. La politique linguistique ne serait pas intégrale si elle n'incluait pas les acteurs privés dans son action.

- Proposer une convention en lien avec le développement de l'euskara aux principales associations d'Urrugne avec un accompagnement spécifique du service euskara
- Prendre en compte et valoriser les efforts réalisés par les associations en faveur de la langue basque.
- Créer et diffuser des supports pour les acteurs de la commune: panneaux ouvert/fermé, sets de table, lexiques...
- Présenter et impulser l'accompagnement de l'association du label Bai Euskarari et/ou Eusko
- Réaliser une cartographie des services/ possibilités d'accueil en langue basque.
- Organiser un événement avec les restaurateurs/bars/ association autour de l'euskara.
- Prévoir une campagne de communication zure saltokian euskaraz! , Bestak euskaraz!
- Organiser un atelier à destination des comités de fêtes et associations organisant des festivités
- Etudier les opportunités qui se présentent en terme d'installation dans la commune.
- Travailler en collaboration avec les associations autour d'événements en lien avec la langue et la culture basque.

Informatu, sentiberatu eta Arnastu: euskara zubi sortzailea

Hizkuntza politikaren bidez, bizitza eremuetan dinamika euskaldunak garatu eta herritarrak informatu eta sentiberatu nahi dira, herritar euskaldunak euskara baliatzen bultzatzeko, euskararen aldeko giro bat sortzeko eta ingurumena atxikitzeko, eta euskaratik urrun sentitzen direnei eskua luzatzeko. Motibapena piztea, indartzea, egonkortzea da helburua, euskararen ikas-tearen, erabiltzearen eta transmititzearen aldeko dinamika bat sortzeko.

Euskara jalgi hadi plazara, l'euskara rayonne sur nos places, Elkargoko hizkuntza politika proiektua, 2018/06/23

- Lurralde mailan antolatzen diren gertakariekin bat egitea: Euskararen urtaroa, Euskaraldia, Korrika, helduei zuzendu sartzeko kanpaina, Euskararen nazioarteko eguna, Mintzalagun.
- Urruñan euskararen inguruko gertakari bat antolatzea elkarrekin.
- Ongi etorri kit bat eskaintza herritar/buraso berrientzat.
- Euskara ikasi nahi duten helduei erretasunak ematea.
- Informazio bilkurak antolatzea gai desberdinen inguruan eta publiko desberdinentzat.
- Euskarazko jarduerak eta kultur eskaintza emendatzea: Elealai...
- Eskolatzearen inguruko kanpaina antolatzea.
- Arnasguneak: euskara hutsezko proposamenak antolatzea urte osoan.
- Euskara zerbitzuak antolatzen dituen inguruko ekintzei buruzko informazioa hedatzea.

S'informer, être sensibilisé : l'euskara créateur de lien

Par le biais de la politique linguistique la commune souhaite développer des dynamiques bascophones et mener une action d'information et de sensibilisation en direction de la population afin d'encourager les usagers bascophones à s'en saisir, de créer un environnement favorable à la langue basque et d'encourager les non bascophones s'intégrer dans cette dynamique. Il s'agit de susciter, maintenir et accroître la motivation afin de créer dans la société une dynamique d'apprentissage, d'usage et de transmission de la langue basque.

Euskara jalgi hadi plazara, l'euskara rayonne sur nos places, Elkargoko hizkuntza politika proiektua, 2018/06/23

- Prendre part aux événements organisés en faveur de l'euskara à l'échelle du territoire: Euskararen urtaroa, Euskaraldia, Korrika, campagne de rentrée de la CAPB, Mintzalagun.
- Organiser à l'échelle de la commune un événement autour de l'euskara en partenariat avec les acteurs privés.
- Offrir un kit "ongi etorri" aux nouveaux arrivants/parents.
- Faciliter l'apprentissage de la langue basque pour les adultes.
- Informer sur les actions du service euskara.
- Organiser des réunions d'information à destination de divers publics et sur des thématiques variées.
- Organiser des événements et augmenter les propositions culturelles en langue basque: Elealai,...
- Campagnes en faveur de la scolarisation en langue basque.
- Arnasguneak: une programmation en euskara tout au long de l'année.

Infos générales / Argibide orokorrak

Fusion des services affaires scolaires et sport jeunesse. Philippe JACQUEL est à la tête du nouveau pôle éducation jeunesse depuis le 1er juillet 2024.

ÉTÉ 2024

L'accueil de loisirs est ouvert jusqu'au 28 août (fermeture vendredi 16 août).

148 enfants ont été accueillis en juillet et 128 le seront août.

NOUVEAUTÉ :

Dans le cadre de l'expérimentation « Euskaraz Josta », deux groupes ont été ouverts en immersion basque :

- 1 groupe PS MS GS (24 enfants)
- 1 groupe CP CE (24 enfants)
